



Araudia

1. KATEGORIAK: Lau kategoria izango dira: gizonzkoen elitekoa, emakumezkoen elitekoa, emakumezkoen herrikoa, gizonzkoen herrikoa, 18 urtez beherako gizonzkoena eta 18 urtez beherako emakumezkoena. 16 urtez beherako gizonzkoena eta 16 urtez beherako emakumezkoena. Parte hartzeko adin txikiena: 10 urte.
2. MUNTATUKO DEN BLOKE KOPURUA: 5 bloke muntatuko dira kanporaketa eta kategoria bakoitzeko edo 4, eta 3 bloke final eta kategoria bakoitzeko.
3. BLOKEAK EGITEKO DENBORA: Sailkapenean blokeak egiteko mailako partehartzaileei gehienez 40 minutu utziko dira eta edo bakoitza egiteko hiru minutu utziko dira, eta denbora etenik gabea izango da bloketik blokera. Finalean denboraren arabera jokatu dute antolatzaileek. Alegia, denak batera edo bakarka. Blokeak flash erara egingo dira: norbaitek egin edo erakutsi egingo ditu aldez aurretik.
4. SAILKAPEN PROBATIK FINALERA BITARTEKO GUTXIENEN DENBORA: Sailkapen probatik finalera bitarteko atsedendia, gutxienez, 20 minutu izango da.
5. SAILKAPENERAKO ARAUAK: Lehendabizi, kateatutako bloke kopurua hartuko da kontuan: bloke gehien egin duenak, irabazi du. Berdinketarik izanez gero, egindako «pege» kopurua hartuko da kontuan. Aurreko bi kopuru horietan berdinketa izanez gero, bonusak hartuko dira aintzat.
6. ZER DA BONUSA?: Bonus delakoa helduleku bat da. Azken topa baino lehen jarriko da, lehiakideek puntuak biltzeko aukera izan dezaten. Horrela, azken topera inor iristen ez bada, lehiakideen artean aldeak ezarri ahalko dira.
7. AZKEN TOPA: Azken heldulekuari bi eskuekin heldu behar zaio, bi segundoz baino luzarago edota epaileak «nahikoa» esan arte.
8. ARAUAK: Txapelketan egin beharreko blokeen kopuruan gutxieneko batzuk ezarri dira, baina gutxieneko horiek alda ditzakete lehiaketa bakoitzaren antolatzaileek, beharrezko ikusten badute. Finalean berdinketarik izanez gero, superfinalak egingo dira.
9. IZENA EMATEKO: Izen-ematea egun berean izango da.
10. PUNTUAK ZENBATZEKO MODUA: Parte-hartzaile bakoitzak orri bat eramango du blokez bloke. Bloke bakoitzaren arduradunak hor jarriko dizkio puntuak.
11. FINALEKO PARTEHARTZAILE KOPURUA: Finaleko proban partehatu dute jende kopuru gutxienekoa 5 lagunekoa izango da. Kopuru horretatik gorako partehartzea antolatzaileek probarako dagoen denboraren arabera izango da.